

BSTK – 2023ko Jarduketa Plana

BSTK – Plan de Actuación 2023

1. BSTK Fundazioaren helburua eta jarduerak

BSTK Fundazioa 2022an sortu zen, Gipuzkoako Lurralde Historikoan baso kudeaketarako estrategia eta epe luzerako zerbitzu ekosistemikoak markatzeko funtsezko tresna bat izateko asmoz. Fundazioaren jarduera, errendimendu osoz jarduten duenean, izango da Gipuzkoako Lurralde Historikoko baso masaren bolumen garrantzitsu bat biltzea eta jabeei errentagarritasun erakargarria eskaintzea baso ustiapenen tutoretza integralaren truke.

Jarduera honen bidez, BSTKk bi helburu nagusi lortu nahi ditu:

1. Ahal den neurrian, basoak ez abandonatzea eta,
2. Lurraldeko baso baliabideen kudeaketa jasangarria bermatzea, bai Gipuzkoako gizartearentzat, bai baso jabearentzat.

Fundazioak gauzatuko duen kudeaketa jasangarriak Lurraldearentzat, herritarrentzat eta enpresentzat balio ekologiko eta sozial handiko jarduerak eta funtzioak gauzatzea erraztuko du.

BSTK Fundazioak erakunde arin bat izango du, baso kudeaketako adituek osatua, eta kostuetan eta kalitatean eragiketa efizientea bermatuko duten aliatu giltzarrien multzo batean oinarrituko da.

Era berean, bitartekaritza zerbitzu bat eskainiko du bere perimetrotik kanpoko baso ustiategiei egurraren salmantan eta baso zerbitzuen erosketan, lurraldeko baso ondarea hobetzen laguntzeko.

BSTKren negozio eredua, errendimendu osoz jarduten duenean, honako hau izango da: Negozio eredu hori 2023an zehar araztuko da.

1. Finalidad de BSTK Fundazioa y actividades

La Fundación BSTK nació en 2022 con la aspiración de ser un instrumento clave para marcar la estrategia de gestión forestal y sus servicios ecosistémicos a largo plazo del Territorio Histórico de Gipuzkoa. La actividad de la fundación se centrará, cuando opere a pleno rendimiento, en agrupar un volumen relevante de la masa forestal del Territorio Histórico de Gipuzkoa, ofreciendo a sus propietarios una rentabilidad atractiva a cambio de la tutela integral de sus explotaciones forestales.

Mediante esta actividad, BSTK aspira a alcanzar dos objetivos centrales:

1. Evitar en la medida de lo posible el abandono forestal y,
2. Garantizar una gestión sostenible de los recursos forestales del Territorio, tanto para la sociedad de Gipuzkoa como para el propietario forestal.

La gestión sostenible que llevará a cabo la Fundación favorecerá la realización de actividades y funciones de alto valor ecológico y social para el Territorio, sus ciudadanos y sus empresas.


BSTK Fundazioa contará con una organización ligera, formada por expertos en gestión forestal, que se apoyará en un conjunto de aliados clave que garanticen una operación eficiente en costes, y calidad.

Asimismo, ofertará un servicio de intermediación en la venta de madera y en la compra de servicios forestales a explotaciones forestales fuera de su perímetro, contribuyendo a mejorar el patrimonio forestal del Territorio.

El modelo de negocio de BSTK cuando opere a pleno rendimiento será el siguiente. Este modelo de negocio será objeto de depuración a lo largo de 2023.

BSTK FUNDAZIOA

2023ko Aurrekontua
Presupuesto 2023



BSTK FUNDAZIOA

2023ko Aurrekontua
Presupuesto 2023

2. BSTK Fundazioaren helburuak 2023rako

BSTK Fundazioaren funtsezko mugarrak 2022an

2022. urtea funtsezkoa izan da BSTK Fundazioarentzat, hainbat arrazoiengatik:

- Fundazioa eratu delako, maiatzaren 30eko Diputatuen Kontseiluak berau onartu ondoren.
- Aldundiak haren aldeko apustua egin eta konpromisoa agertu duelako, hurrengo 5 urteetarako 8 milioi euro bideratzea erabakiz.
- Fundazioa martxan jarri zelako, 2022ko ekainean egindako ekitaldi batean, non diputatu nagusiak, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko diputatuak eta Mendietako eta Natura Inguruneko zuzendariak parte hartu baitzuten.
- Herritarren artean eta basogintzaren sektorean interesa piztu duelako, ekimenean interesa sortu asmoz egin diren komunikazio-ekintzen ondorioz, idatziz zein ikus-entzunezko hedabideetan.
- 2022ko urrian zuzendari nagusi bat kontratatu zelako, 2023an ekimena abian jarri eta finkatzeko lanen buruan jardungo duena, eta Fundazioaren behin betiko egitura organikoa definituko delako.

2023rako helburu eta jarduketa lerro nagusiak

2023ko lehen hilabeteetan, BSTKk bere babes integralerako lehen ustiapenak jaso ahal izan arte, beharrezkoa izango da memoria honetan zehar adierazitako jarduerak abian jartzea erraztuko duten zeregin guztiei ekitea, bereziki antolaketari eta operazioari dagokienez.

Ustiategien tutoretza integralari buruzko BSTKren jardueren hasiera ez da 2023ko amaierara arte hasiko. Zaintzeko jasotzen diren ustiapenak, kontabilitatean, izakintzat hartuko dira, eta lagapenaren truke baso jabeekin duten zorra izango dute ordainetan.

Antolaketa arloko jarduera lerroak

2022ko urrian zuzendari nagusia kontratatu ondoren, 2023an antolamendu egitura egonkor bat osatu

2. Objetivos de BSTK Fundazioa para 2023

Hitos clave de BSTK Fundazioa en 2022

2022 ha sido un año fundamental para BSTK Fundazioa por diversos motivos:

- Por la constitución de la fundación tras su aprobación por el Consejo de Gobierno celebrado el 30 de mayo.
- Por la apuesta y compromiso de la Diputación, acordando la aportación de 8 millones de euros para los próximos 5 años.
- Por el lanzamiento público de la Fundación en un evento celebrado en junio de 2022, en el que participan el Diputado General, el Diputado de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural y la Directora de Montes y Medio Natural.
- Por el interés generado entre la ciudadanía y el sector forestal, como consecuencia de las diversas acciones de comunicación en medios audiovisuales y escritos realizada con el objetivo de promocionar y generar interés en la iniciativa
- Por la contratación, en octubre de 2022, de un Director General, que liderará la puesta en marcha y consolidación de la iniciativa a lo largo de 2023, y la definición de la estructura orgánica definitiva de la Fundación

Principales objetivos y líneas de actuación para 2023

Durante los primeros meses de 2023, hasta que BSTK pueda recibir las primeras explotaciones para su tutela integral, será preciso acometer toda una serie de tareas que propicien la puesta en marcha de las actividades señaladas a lo largo de la presente memoria, especialmente referidas al ámbito organizativo y operativo.

El inicio de las actividades de BSTK referido a la tutela integral de explotaciones no comenzará hasta finales de 2023. Las explotaciones recogidas para su tutela tendrán la consideración contable de existencias, siendo su contrapartida la deuda con los propietarios forestales por la cesión.

Líneas de actuación a nivel organizativo

Tras la contratación de la figura del Director General en octubre de 2022 será necesario completar una

BSTK FUNDAZIOA


2023ko Aurrekontua
Presupuesto 2023

beharko da, urte hasieran Fundazioan pertsonen profil berriak sartuz.

estructura organizativa estable en 2023, incorporando nuevos perfiles de personas en la Fundación a principios de año.

Horrela, BSTK Fundazioak bi profil gehigarri izango ditu, bata basogintza arlorako eta bestea merkataritza arlorako, jardunean hasi ahal izateko, eta honako antolaketa egitura hau osatzeko:

Así, BSTK Fundazioa incorporará dos perfiles adicionales, uno para el área forestal y otro para el área comercial, que le permitan comenzar a operar, conformando la siguiente estructura organizativa.



Bestalde, 2023aren amaieran eta 2024aren hasieran kudeaketa administratiboa trinkoa izango denez, baso titularrekin lagapen kontratuak kudeatzeagatik, BSTKk administrazio prozesu horien zati bat azpikontratatu du, egoeraren arabera.

Maila operatiboko jarduera lerroak

Maila operatiboan, BSTK Fundazioak honako jarduera zehatz hauek jarriko ditu abian 2023an, Fundazioa finkatu eta sendotu dadin.

Jarraian, eremu hauetan banakatutako jarduketak zehazten dira:

1. Kudeaketa
2. Hedatzea eta abiaraztea
3. Baso titularrekiko harremana
4. Aliatu gakoekiko harremana

Por otro lado, como la gestión administrativa será intensa a finales de 2023 y principios de 2024, por la gestión de los contratos de cesión con los titulares forestales, BSTK subcontratará de forma coyuntural parte de estos procesos administrativos.

Líneas de actuación a nivel operativo

A nivel operativo BSTK Fundazioa pondrá en marcha las siguientes actuaciones concretas en 2023 para que la Fundación cobre cuerpo y se consolide.

A continuación se detallan las actuaciones desglosadas en los siguientes ámbitos:

1. Gestión
2. Difusión y lanzamiento
3. Relación con titulares forestales
4. Relación con aliados clave

BSTK FUNDAZIOA

2023ko Aurrekontua
Presupuesto 2023

5. Eragiketak 2023ko amaieran abiaraztea (esku-hartzeak hasi aurretik)

5. Puesta en marcha de las operaciones a finales de 2023 (antes de iniciar las intervenciones)

1. Kudeaketa

- 2023-2026 Plan Estrategikoa egitea
- Balio proposamena zehaztea estrategiarekin bat etorriz, baso titularrekiko harreman eredu eta eskainitako ordainsaria egokituz.
- Jardueren zorroa zehatz-mehatz zehaztea, ustiatzearen tutoretza integraleko jardueran arreta jarrita, eta kudeaketa jasangarriaren eredu definitzea
- Negozio eredu definitzea eta zehaztea.

2. Hedatzea eta abiaraztea

- Webgune bat diseinatzea eta abiaraztea
- Komunikazioa kudeatzea
- Proiektuari lotutako kolektiboentzako komunikazio kanpaina espezifiko berriak garatzea (baso titullarrak eta haien elkarteak, aliatu giltzarriak, herritarriak, sektore lausoko eragileak)

3. Baso titularrekiko harremana

- Kontratu ereduak eta jasotako baso azalerak baloratzeko irizpideak zehaztea.
- Baso titularrekin lehen harremanak ezartzea eta lehen akordioak negoziatzea 2023ko hirugarren hiru hilabetera aurrera.
- Lehenengo baso ustiatzearen hartzea, horiek zaintzeko (3.500 ha inguru).

4. Aliatu gakoekiko harremana

- BSTKraiko aliatu gakoekiko profilen mapa definitzea eta zehaztea, honako egitura hau oinarri hartuta:

Baso zerbitzuen hornitzaileak eta beste eragile garrantzitsu batzuk

Mintegizainak
Baso koadrilak
Errematatzaileak

Ziurtapen agentziak
Aseguratzailak
Ezagutzaren eragileak
Kudeatzaile administratiboak

Bezeroak eta zuraren industria

Zerrategiak
Biomasa enpresak

1. Gestión

- Elaboración del Plan Estratégico 2023-2026
- Matización de la propuesta de valor en coherencia con la estrategia, ajustando el modelo de relación con los titulares forestales y la retribución ofertada
- Concreción detallada de la cartera de actividades, con foco en la actividad de tutela integral de las explotaciones, y definir el modelo de gestión sostenible
- Ajuste y concreción del modelo de negocio.

2. Difusión y lanzamiento

- Diseño y lanzamiento de un sitio web
- Gestión de la comunicación
- Desarrollo de nuevas campañas de comunicación específicas para los diferentes colectivos vinculados al proyecto (titulares forestales y su asociación, aliados clave, ciudadanía, agentes del sector difuso)

3. Relación con titulares forestales

- Concretar los modelos de contratos y los criterios de valoración de las superficies forestales recibidas.
- Establecer los primeros contactos y negociar los primeros acuerdos con titulares forestales a partir del tercer trimestre de 2023.
- Recepción de las primeras explotaciones forestales para su tutela (en torno a 3.500 ha).

4. Relación con aliados clave

- Definir y concretar el mapa de los perfiles de aliados clave para BSTK a partir de la siguiente estructura:

BSTK FUNDAZIOA

2023ko Aurrekontua
Presupuesto 2023

Proveedores de servicios forestales y otros agentes relevantes

*Viveristas
Cuadrillas forestales
Rematantes*

*Agencias de certificación
Aseguradoras
Agentes del conocimiento
Gestores administrativos*

Clientes e industria maderera

*Aserraderos
Empresas de biomasa*

- Profil bakoitzerako aliatu giltzarri izan daitekeen entitate bat edo batzuk identifikatzea
- Funtsezko aliatuekin lehen harremanak ezartzea: baso zerbitzuetako entitateak, mintegiak, aseguratzailleak, zerrategiak, entitate ziurtatzaileak (CO2 eskubideen borondatezko merkaturako).

5. Eragiketak abiaraztea (esku-hartzeak hasi aurretik)

- Basoberritzeko estrategia definitzea.
- Ustategietako baso masa ziurtatzeko prozesua diseinatzea, CO2 eskubideen borondatezko merkatua zehaztu aurretik; ziurrenik, 2024an egingo da.

- Identificar para cada perfil, uno o varias entidades que puedan ser aliados clave
- Establecer los primeros contactos con los posibles aliados clave: entidades de servicios forestales, viveros, aseguradoras, aserraderos, entidades certificadoras (para el mercado voluntario de derechos de CO2).

5. Puesta en marcha de las operaciones (antes de iniciar las intervenciones)

- Definir la estrategia de reforestación.
- Diseñar el proceso de certificación de la masa forestal de las explotaciones, como paso previo a la concreción del mercado voluntario de derechos de CO2, que previsiblemente se realizará en 2024.

BSTK FUNDAZIOA

2023ko Aurrekontua
Presupuesto 2023

3. 2023rako diru sarreraren eta gastuen aurrekontua

BSKT Fundazioaren 2023rako diru sarreraren eta gastuen aurrekontua honako hau da:

3. Presupuesto de Ingresos y Gastos para 2023

El presupuesto de Ingresos y Gastos de BSKT Fundazioa para 2023 es el siguiente:

GASTUEN AURREKONTUA PRESUPUESTO DE GASTOS		Gastua guztira / Gasto total:	436.173,00 €
SAILKAPEN EKONOMIKOA	CLASIFICACIÓN ECONÓMICA	2023	
1. kapitulua: Langileen gastuak	Capítulo 1: Gasto de personal	225.000,00 €	
2. kapitulua: Ondasun eta zerbitzuetako ohiko gastuak	Capítulo 2: Gastos corrientes en bienes y servicios		
20. Errentamenduak	20. Arrendamientos	6.000,00 €	
220. Bulegoko materiala	220. Material de oficina	6.000,00 €	
222. Komunikazioak	222. Comunicaciones	6.600,00 €	
226. Askotariko gastuak	226. Gastos varios	12.000,00 €	
227. Profesional edo enpresa espezializatuek egindako lanak	227. Trabajos realizados por profesionales o empresas especializadas	177.073,00 €	
23. Zerbitzuak ematearen kalte-ordainak Dietak, egonaldiak, lokomozioa eta garraioak	23. Indemnizaciones por razón de servicio Dietas, estancias, locomoción y traslados	3.500,00 €	

SARREREN AURREKONTUA PRESUPUESTO DE INGRESOS		Sarrera guztira / Ingreso total	436.173,00 €
SAILKAPEN EKONOMIKOA	CLASIFICACIÓN ECONÓMICA	2023	
3. kapitulua: Tasak eta bestelako sarrerak	Capítulo 3: Tasas y otros ingresos	- €	
34. Zerbitzuak ematea (enpresentzako zerbitzuak)	34. Prestación de servicios (servicios a empresas)	€	
4. kapitulua: Transferentzia eta dirulaguntza arruntak	Capítulo 4: Transferencias y Subvenciones Corrientes	436.173,00 €	
420. Gipuzkoako Foru Aldundiaren transferentziak	420. Transferencias de la Diputación Foral de Gipuzkoa	436.173,00 €	
471. Enpresa pribatuen transferentziak (babesleak)	471. Transferencias de empresas privadas (patrocinadores)	- €	
49. Kanpo transferentziak (Europako proiektuak)	49. Transferencias del exterior (Proyectos europeos)	- €	

BSTK FUNDAZIOA

2023ko Aurrekontua
Presupuesto 2023

4. 2023ko aurrekontuaren azalpen memoria

Kapitulu honetan 2023ko gastuen, inbertsioen, diru-sarrereren eta transferentzien kontzeptu nagusiak zehazten dira.

Gastuen aurrekontua

BSTK Fundazioaren gastuen zenbateko nagusiak honako kontzeptu hauei dagozkie: Langileen gastuak eta profesional edo enpresa espezializatuak egindako lanak.

Gastu arrunten aurrekontua 436.173 € izango da.

Langileen gastuak (1. kapitulua)

2023an, 3 langileko plantilla aurreikusten da. Zuzendari nagusia, 2022an sartu zena, eta beste bi profesional, 2023ko hasieran sartuko direnak. Hona hemen plantillaren xehetasunak, lanbide-profilaren eta urteko kostuaren arabera:

Lanbide profila Perfil profesional	Kostu gordina Coste bruto
Zuzendari nagusia / Director General	100.000 €
Basogintzako teknikaria / Técnico Forestal	75.000 €
Merkataritzako administraria / Administrativo Comercial	50.000 €
Guztira /Total	225.000 €

Ondasun eta zerbitzuetako ohiko gastuak (2. kapitulua)

Gastu arruntetatik eta ondasun eta zerbitzuetatik eratorritako guztizko gastua 211.173 € da, honako kontzeptu hauen arabera banakatua:

- Errentamenduak:** BSTK taldeak bere jarduerara garatzeko lokal bat alokatzea aurreikusten da.
Errentamenduei dagokien guztizko gastua 6.000 € izango da.
- Bulegoko materiala:** partida honetan ekipoak bere eginkizunak betetzeko erabiliko duen bulegoko materiala sartzen da.
Bulegoko materialari dagokion guztizko gastua 6.000 € izango da.

4. Memoria explicativa del Presupuesto de 2023

En el presente capítulo se detallan los principales conceptos de gastos, inversiones, ingresos y transferencias correspondientes a 2023.

Presupuesto de Gastos

Los importes principales de gastos de BSTK Fundazioa se atribuyen a los siguientes conceptos: Gastos de personal y Trabajos realizados por profesionales o empresas especializadas.

El presupuesto de gasto corrientes ascenderá a 436.173 €.

Gastos de personal (Capítulo 1)

Se contempla una plantilla de 3 personas durante el transcurso de 2023. El Director General, incorporado en 2022 y dos nuevos profesionales que se incorporarán a principios de 2023. El detalle de la plantilla por perfil profesional y coste anual es el siguiente:

Gastos corrientes en bienes y servicios (Capítulo 2)

El gasto total derivado de gastos corrientes y bienes y servicios es de 211.173 €, que se desglosa de acuerdo con los siguientes conceptos.

- Arrendamientos:** se contempla el arrendamiento de un local para que el equipo de BSTK desarrolle su actividad.
El gasto total de arrendamientos ascenderá a 6.000 €
- Material de oficina:** esta partida contempla el material de oficina que utilizará el equipo en el ejercicio de sus funciones.
El gasto total de material de oficina ascenderá a 6.000 €

BSTK FUNDAZIOA

2023ko Aurrekontua
Presupuesto 2023

- **Komunikazioak:** partida honek telefonia mugikorraren, finkoaren eta Interneteko konexioaren urteko gastuak jasotzen ditu. Bulegoko materialari dagokion guztizko gastua 6.600 € izango da.

- **Profesionalek egindako lanak:** ohiko jardueretan aritzen diren bertako langileez gain, beste erakunde batzuen laguntza espezializatua izango da, Fundazioarekin lankidetzan arituko diren hainbat arlotan.

Aurreikusten diren arloak honako hauek dira:

- Laguntza estrategikoko aholkularitza
- Baso jabeekiko tutoretza kontratuen klausulak zehaztearekin lotutako zerbitzu juridikoak.
- Beste zerbitzu juridiko batzuk, marketina eta publizitatea.

Profesional edo enpresa espezializatuek egindako lanen guztizko gastua 177.073 € izango da.

- **Zerbitzuagatiko kalte-ordainak:** atal honetan BSTKko taldearen joan-etorrien, dieten eta antzekoen gastuak sartzen dira.

Zerbitzuagatiko kalte-ordainei dagokien guztizko gastua 3.500 € izango da.

Sarreraren aurrekontua.

2023rako aurreikusten da diru sarrera guztiak iturri publikoen finantzaketari dagozkiola.

Diru-sarreraren aurrekontua, guztira, 2.036.173 € izango da.

Diru-sarrerak iturri publiko hauetatik etorriko dira:

Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kapitulua)

BSTK Fundazioak **436.173 €** jasoko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiaren transferentzia arrunt gisa, langileen gastuak eta gastu arruntak finantzatzeko.

2023an babesteko jasotako baso azaleraren kontabilitate eragina.

2023ko azken hilabeteetan, BSTK Fundazioak 3.500 ha-ko baso azalera jasotzea espero da, haren babes integralerako.

- **Comunicaciones:** esta partida recoge los gastos anuales de telefonía móvil, fija y conexión a internet.

El gasto total de material de oficina ascenderá a 6.600 €

- **Trabajos realizados por profesionales:** además del personal propio con dedicación al desarrollo de actividades habituales, se contará con el apoyo especializado de otras entidades en diversas áreas que colaborarán con la Fundación.

Los ámbitos contemplados son:

- Consultoría de apoyo estratégico
- Servicios jurídicos relacionados con la concreción del clausulado de los contratos de tutela con los propietarios forestales.
- Otros servicios jurídicos, marketing y publicidad.

El gasto total de trabajos realizados por profesionales o empresas especializadas ascenderá a 177.073€

- **Indemnizaciones por razón de servicio:** este apartado contempla los gastos de desplazamientos, dietas y similares del equipo propio de BSTK.

El gasto total de Indemnizaciones por razón de servicio ascenderá a 3.500€

Presupuesto de Ingresos

Para 2023 se contempla que la totalidad de los ingresos correspondan a la financiación de fuentes públicas.

El presupuesto de ingresos total ascenderá a 2.036.173€

Los ingresos procederán de las siguientes fuentes públicas:

Transferencias y subvenciones corrientes (Capítulo 4)

BSTK Fundazioa recibirá **436.173€** en forma de transferencias corrientes de la Diputación Foral de Gipuzkoa, para financiar los gastos de personal y los gastos corrientes.

Impacto contable de la superficie forestal recibida en 2023 para su tutela.

En los últimos meses de 2023, se espera que BSTK Fundazioa reciba 3.500 ha de superficie forestal para su tutela integral.

BSTK FUNDAZIOA

2023ko Aurrekontua
Presupuesto 2023

Aldez aurretik, eta kontuan hartuta jasotako baso azaleraren egitura, baso espezie bakoitzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoak duenaren antzekoa dela (dena den, espezie batzuek pisu handiagoa dute, hala nola baso misto atlantikoa, eta beste batzuek txikiagoa, hala nola intsinis pinua), kalkulatzeko da azalera horrek 17.591.200 euroko balioa izan dezakeela.

Jasotako azalera, kontabilitateari dagokionez, ibilgetu ez-materialtzat hartuko da, eta horren kontrakontua ondare garbiaren erreserba izango da.

Jasotako baso-azalera basoberritzeko prozesuetarako funtsari ekarpenak egitea.

BSTK fundazioaren berezko funtse 1.600.000 euroko ekarpena jasoko dute 2023an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik.

De forma preliminar, y considerando que la superficie forestal recibida presenta una estructura por especie forestal similar a la del TH de Gipuzkoa (aunque con mayor peso de algunas especies como bosque mixto atlántico y menor de otras como pino radiata), se estima que esta superficie podría tener un valor de 17.591.200 €.

La superficie recibida tendrá la consideración contable de inmovilizado inmaterial y su contrapartida será la reserva en el patrimonio neto.

Aportaciones al fondo para los procesos de reforestación de la superficie forestal recibida.

BSTK recibirá en 2023 de la Diputación Foral de Gipuzkoa una aportación a los fondos propios de la fundación de 1.600.000 euros.

BSTK FUNDAZIOA

2023ko Aurrekontua
Presupuesto 2023

BSTK – Azalpen txostena 2023

BSTK – Informe Explicativo 2023

2022. urtea funtsezkoa izan da BSTK Fundazioarentzat, hainbat arrazoirengatik:

2022 ha sido un año fundamental para BSTK Fundazioa por diversos motivos:

- Fundazioa eratu delako, maiatzaren 30eko Diputatuen Kontseiluak berau onartu ondoren.
- Aldundiak haren aldeko apustua egin eta konpromisoa agertu duelako, hurrengo 5 urteetarako 8 milioi euro bideratzea erabakiz.
- Fundazioa martxan jarri zelako, 2022ko ekainean egindako ekitaldi batean, non diputatu nagusiak, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo diputatuak eta Mendietako eta Natura Ingurunekeo zuzendariak parte hartu baitzuten.
- Herritarren artean eta basogintzaren sektorean interesa piztu duelako, ekimena sustatzeko eta hari buruzko interesa pizteko ikus-entzunezko nahiz idatzizko hedabideetan egin diren komunikazio ekintzen ondorioz.
- 2022ko urrian zuzendari nagusi bat kontratatu zelako, 2023an ekimena abian jarri eta finkatzeko lanen buruan jardungo duena, eta Fundazioaren behin betiko egitura organikoa definituko delako.

- Por la constitución de la fundación tras su aprobación por el Consejo de Gobierno celebrado el 30 de mayo.
- Por la apuesta y compromiso de la Diputación, acordando la aportación de 8 millones de euros para los próximos 5 años.
- Por el lanzamiento público de la Fundación en un evento celebrado en junio de 2022, en el que participan el Diputado General, el Diputado de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural y la Directora de Montes y Medio Natural.
- Por el interés generado entre la ciudadanía y el sector forestal, como consecuencia de y las diversas acciones de comunicación en medios audiovisuales y escritos realizada con el objetivo de promocionar y generar interés en la iniciativa.
- Por la contratación, en octubre de 2022, de un Director General, que liderará la puesta en marcha y consolidación de la iniciativa a lo largo de 2023, y la definición de la estructura orgánica definitiva de la Fundación.

2023. urtea ere garrantzitsua izango dela aurreikusten da, BSTK Fundazioak bere jardunari ekingo baitio.

2023 también se presenta como un año clave ya que BSTK Fundazioa comenará a funcionar como una organización con actividad.

Lehenengo hilabeteetan, baliabidez eta antolamendu egitura batez hornituko da Fundazioa, lan egin ahal izateko egin behar diren zereginiei heltzeko:

Durante los primeros meses, se dotará de recursos y estructura organizativa a la Fundación, para abordar labores necesarias para poder operar:

- Estrategia eta zerbitzu zorroa zehaztea.
- Basojabeekin eta funtsezko beste eragile batzuekin komunikatzeko eta harremanetan jartzeko ekintzak gauzatzea.
- Basojabeekiko harremanetarako esparru juridikoa zehaztea.

- Concreción de la estrategia y cartera de servicios.
- Despliegue de acciones de comunicación y contacto con los propietarios forestales y otros agentes clave.
- Concreción del marco jurídico de relación con los propietarios forestales.

Ondoren, 2023ko bigarren erdian, BSTK Fundazioa prest egongo da eragiketarako abian jartzeko. 2023ko azken hilabeteetan, Fundazioak lan hauek egitea espero da:

Posteriormente, en la segunda mitad de 2023, BSTK Fundazioa estará preparado para poner en marcha las operaciones. En estos últimos meses de 2023, se espera que la Fundación:

- Basoberritzeko estrategia definitzea.
- Funtsezko aliatu posibleekin lehenengo kontaktuak izatea.
- 2023ko hirugarren hiruhilekotik aurrera, basoen titularrekin lehenengo kontaktuak izatea eta lehenengo akordioak negoziatzea.
- Zaintzeko lehenengo baso ustiategiak jasotzea (3.500 ha inguru).

- Defina la estrategia de reforestación.
- Establezca los primeros contactos con los posibles aliados clave.
- Establezca los primeros contactos y negociar los primeros acuerdos con titulares forestales a partir del tercer trimestre de 2023.
- Reciba las primeras explotaciones forestales para su tutela (en torno a 3.500 ha).